

BIZI! -RI BURUZ JAKIN NAHI DUZUEN GUZIA GALDEGITERA AUSARTU GABE



*Bizi!-ko segitzaile eta
kide berriendako gida.*

1. Zer nahi du Bizi!-k ?
2. Zer egiten du Bizi!-k ?
3. Nola ibiltzen da ?
4. Zer nolako komunikazioa dago ?
5. Zer dira keinu bitxi horiek bilkuretan ?

bizi!

20 Cordeliers Karrika
64100 BAIONA
05 59 25 65 52

1. ZER NAHI DU BIZI-K ?

Bizi-ren borroka eta horren eramaiteko moldea Bizi ! Hitzarmenean zehaztua da, eta hau dugu funtsezko dokumentua eta mugimenduaren egiazko oinarri amankomuna. Mugimenduan sartu nahi duen pertsona orok ondoko Hitzarmena onartu behar du :

BIZI MUGIMENDUAREN HITZARMENA!



Larrialdi ekologikoa eta justizia soziala :

Oraiko krisia ekologikoa (klimaren aldaketak, energia fosil eta lehengai eskuragarrien eskasteak, biodibertsitatearen gainbehera kezkarriak, etab.) Lurraren mugekin buruz buru emaiten gaitu.

"Berdea" izan ala ez, mugagabeko garapen materiala ezinezkoa da. Muga naturalen errespetua nahi dugu, justiziaz eta zuzentasunez.

Gizakiak elkarren arteko laguntza eta elkartasuna beharrezkoak ditu, lehiarik gabe.

Beste gizakien, bai eta ere bizi den planetaren eta ondoko belaunaldieri utziko dien egoeraren ardurak ditu.

Giza/emazteen geroa orain jokutzen da :

Ekonomia kapitalista eta gure garapen eredu produktibista baliabide harrapaketa eta norbanakoen, biztanleriaren, komunitateen, Estatuaren eta kolektibitateen arteko lehiaren gainean eraikiak dira.

Logika horrek serioski kaltetu ditu gure planeta eta haren oreka haundiak, eta orain gure jendartearen eta bizidunen munduaren parte garrantzitsu baten geroa bera mehatxatzen ditu.

Erronkak argiak dira, ezagutuak eta zenbatuak. Eta bereziki, dena orain jokutzen da.

Jarraitu behar den bidea :

Utzi behar dira produktibismoa, enpoilketa eta gainkontsumitzea.

Bakotzak izan behar du energia, oihanak, lurra eta ura gisako ondasun komunez baliatzeko ahal berdina.

Kolektibitateak baliabide horien kontrola berriz hartu eta berkokatu behar du. Ber maneran premiazkoa da jendarteak energia erabiltzearen ttipitzeko prozeduretan inbertsioa egitea eta energia berriztagarrien garapena sustatzea.

Energia fosilen ustiapena azkarki beitiarazi behar da.

Ipar eta Hegoko herrien arteko berdintasunerat heltzeko zor ekologikoa (1) erreparatua izan behar da.

Eta gure herri industrializatueta, ez da gehiago ekoiztu behar pobreziaren borrokatzeko, baina gehiago banatu behar da eta bestela ekoiztu.

Biskotxa ttipiarazi eta berriz banatu behar dugu, eta haren errezeta aldatu behar dugu ere.

Saihestezinezko trantsizioa :

Etorkizun iraunkor batera joaiteko aterabide alternatiboak eta urrats konkretuak ez dira eskas.

Sistema aldaketa bat eskatzen dugu baina ez gira horretan jarduteko "arrats handia"ren beha egonen.

Ikasteko, ekin beharko dugu. Harraraziko ditugun neurriei eta eraikiko ditugun alternatibei esker gehiengo zabal bat ohartaraziko dugu trantsizio jasangarri batekin, bizi hobea eta pozgarriagoa izanen dugu bai guk, eta bai ondoko belaunaldiek ere.

Neurri eta alternatiba hauek, nazio arte mailan lortu, eraiki behar dira, baina ere lurralde, tokiko erkidego bakoitzaren mailan.

Kopenhague-ko Klimaforum09ren Herrien Aldarrikapenak dioten bezala, "giza kohesioa, partehartze demokratikoa, ekonomia eta ingurumen mailako erantzukizuna, erabakiak hartzeko guneak egokia den izari apalenean berriz jarritz baizik ez dira lortuko".

Funtsezko printzipioak :

Bizi! mugimenduaren ekintza eremu nagusia Ipar Euskal Herria da. Bizi! nazio arte mailako mugimendu altermundialistan osoki kokatzen da.

Gure ekintza kultur aniztasunaren borrokaren baitan naturalki sartzen da. Gure komunikazioa, elebiduna da, euskara/frantsesa.

Gaur egun planeta eta gizadiak aitzinean dituzten erronka handien heineko ekintza eta mobilizazio determinatuak garatu nahi ditugu estrategia klandestino edo ekintza bortitz oro argiki baztertuz.

Bizi! mugimenduak ez du nehundik ere alderdi politiko baten eta oraindik guttiago podere publikoen menpe egon nahi.

Gure ekintza iraunkortasunean nahi dugu ondoko 6 zutabeen ildotik ereman:

1. diagnostikoa, kritika eta erresistentzia ;
2. proposamen zehatz batzuren lantzea ;
3. gaurdanik posible diren tokiko alternatiba kolektiboen aldeko borroka ;
4. bakotxaren jokamoldeen aldaketa eta praktikaren pedagogia ;
5. barne eta kanpo formakuntza ;
6. nazioarteko gogoeta eta mobilizazioetan parte hartzea.

Bizi! ibilmolde demokratiko bat plantan jarriko du, kide bakotxak bere estrategia eta lan konkretuak osoki zehaztu eta kontrolatzeko gisan. Ibilmolde horren funtsezko oinarria "kide bat, boz bat" da.

Bizi!-ren baloreak ez dira bateragarriak arrazakeria, xenofobia, sexismoa eta homofobia bezalako jokabideekin.

Bizi! mugimenduko kide izaiteko, Hitzarmen hunekin ados izan behar da, mugimenduaren estatutuak errespetatu behar dira eta eta urteko kotizazioa (2) ordaindu behar da.

(1) Zor ekologikoa : Iparaldeko herri industrializatuak hirugarren munduari begira garatu duten zorra, baliabideak ebatsiz, ingurumena andeatuz eta, herri industrializatuetatik datozen berotegi efektu gasen gisako hondakinak uzteko ezer ordaindu gabe ingurumena okupatuz.

*(2) Beran, 2010eko Apirilaren 5ean iragan den Biltzar Nagusiak 2010ko kotizazioaren prezioa horrela finkatu du :
-10 euro ikasle, langabetu, langile prekarioentzat
-30 euro smica baino pixka bat gehiago edo hein berdineko soldata dutenentzat
-50 euro edo gehiago smica baino askoz gehiago irabazten dutenentzat edo BIZI ! mugimenduari laguntza azkarragoa ekarri nahi dutenentzat.*

2. ZER EGITEN DU BIZI-K ?

Bakotxak bere harria ekar dezake, pixka bat edo anitz parte hartuz ondoko lan talde hauetariko batean.

Alabaina, 10 lan talde daude Bizi!-n, eta zuen beha dira azkartzeko :

(Zuen izena talde batean emaitako, mail bat igor ezazue dagokion taldearen helbidera, zuen izen eta xehetasun guzietan eta "izen emaita" izen gakoarekin.)



Autoari Alternatiba taldea

Talde honen helburua da autoak hirian okupatzen duen tokia ttipitzea. Hortarako garraio molde alternatiboak aitzinean emanen ditu : garraio kolektiboak, molde goxokoak (txirindula, ibiltzea, skate-a, etab.). Herritar Diagnostiko bat plantan emana izan da maiatzaren bukaera arte, BABko txirindula ibilbideetan gune txarrak nun diren identifikatzeko eta ondotik SMTC/GPSA (Garraio Publikoen Sindikatu Anitza)ari txosten baten emaitako. Beste helburu bat da garraio kolektiboaren eskaintza haunditzea eta haien erabilpena erreteia (autobusetan sartzea urririk denentzat, tokiko tren sarean prezioen ttipitzea, etab.).



Kontsumo arduratsua taldea

Talde hunen xedea da herritarren sentsibilizatzea beren azterna ekologikoa ttipi dezaten. Hortarako ingurumenen kalte handiak dituzten eguneroko kontsumoak, eta errex aldatzen ahal direnak, bai eta ere aterabide faltsuak «garbiketa berdean» enbalatua, etab. salatu beharko dira. Hori guzia jorratzen ahal da supermerkatuetan eta kontsumoaren beste tenploetan eramaiten ahal diren ekintzekin. Paraleloki proposatuak izanen dira hobeki kontsumitzeko alternatiba zehatz eta konkretu batzuk, bereziki aterabideak xekatuz tokian berean eta sal/eros sistematik kanpo.



Lana taldea

Talde hunek lanaren problematikari lotuak diren ildo ezberdinak jorratzen ditu : erretreten alde, igandetako lanaren aurka, langabeziaren aurka lanaren partekatzea, pobrezia kontrako borroka aberastasunak banatuz eta ez gero eta gehiago ekoiztuz. Konkretuki, kanpaina zehatz bat abiatu da supermerkatuen igandetako idekitzearen aurka.



Banketik taldea

BNP-Paribas, Société Générale, Crédit Agricole, etab. bezalako banku batzuen nazio arteko inbertsioek suntsipena eragiten dute ekologia eta sozial mailan. Hori guzia gure diruarekin egin da, zeren gutariko bakotxak kondu bat bankuan izanki ez diogu sekulan gure bankuari galdegiten zertarako baliatua den diru hori. Ondorioz, behar da plantan ezarri hiru banku horien boikota, helburu zehatz eta neurgarri batekin (adibidez 500 pertsonen beren konduak 3 banku horietarik kentzea). Eta beste aldetik, behar da elkartasun ekonomian eta garapen iraunkorran inbertsioak egiten dituzten bankuen promozioa egin. Boikota kanpaina horren kariatara eramana izanen da gogoeta orokor bat banku sistema, finantza, kreditu eta monetari buruz bai eta ere maila globaleko eta tokiko alternatibei buruz.





Ekintza taldea
Taldea horrek Bizi!-ren ekintza garrantzitsu eta haundiak antolatzen ditu eta Bizi!-ren ekimen edo ekitaldi ezberdinak ere (manifestaldi, kontzertu, foro, etab.). Behar diren gaitasun eta gustuak : brikolajea, eskalada, karrika antzerkia, antolaketa gaitasuna,...



Komunikazio taldea

Pixkana Bizi!-ren barnean plantan ezarri da komunikazio talde bat : argazki taldea, blogaren kudeaketa, bideo egitea, grafista taldea (afitxa, esku paper eta liburuxka egitea), helbide elektronikoen datu base kudeaketa. Infografia, argazkia, bideoa, interneta edo informatikarako gaitasuna edo gustua baduzue... ongi etorria duzue.



Formakuntza taldea

Taldea hunen helburua Bizi!-ko kide eta militanteei formakuntza programa etengabe bat eskaintzea da : bai "militanteen tekniken arloan" (esku paper bat, bideo bat, etab. nola egin, bilkura edo kanpaina bat nola animatu, bortxa gabeko ekintzei buruzko teknikak, etab.) bai eta ere edukian edo mamian (gai sozial eta ekologikoak, bortxa eza aktiboaren estrategia, etab.).



Itzulpen taldea

Bizi!-ko komunikazioa elebiduna da (frantsesa eta euskalduna) eta erregulariki komunikazio euskarri ezberdinen itzultzeko pertsonen beharra bada.



Idazkaritza taldea

Baitezpadakoa da Bizi!-ren Koordinaketa eta Biltzar Nagusi bakoitzean pertsona batzuek noten hartzeaz eta segidan bilkura bildumen egiteaz ardura daitezen.



Bizi! Batukada

Bizi!-ren manifestaldi eta ekintzen animatzeko gaitasuna ukaiteko xedearekin, Batukada bat erregulariki errepikak egiten ari da.




Tokiko taldeak

Azkenik, posible da Bizi!-ren tokiko talde batzuen sortzea, gune geografiko zehatz batean 3 kidek bederen erabakiz gero. Xehetasun gehiagorentzat, Bizi!-ren Estatutuak irakur.



3. NOLA IBILTZEN DA ?

Horra Bizi!-ren ibilmolde orokorreko ardatz nagusiak laburbiltzen dituen eskema bat. Estatutuak osoki aurki ditzakezue lokalean edo blogean.



4. ZER NOLAKO KOMUNIKAZIOA DAGO ?

Kide guziak hedapen zerrenda baten harpidedunak dira, Bizi!-ren Koordinaketaren eta Biltzarren bildumak, baita ere informazio garrantzitsuenak horren bitartez eskuratzeko.

Bizi!-ren eguneroko ibilmoldea (hitzordu ezberdinak, bilkurak, ekintzen prestakuntzak, eztabaidak...) hurbilagotik segitu nahi dutenek eztabaida zerrendan izena emaiten ahal dute : barnebizia@bizimugi.eu

Ekosozinfo deitu zerrenda bat bada ere (ekosozinfo@bizimugi.eu) izena emaiten dutenek Bizi!-ren gai handiei lotu informazio, abisu eta testu oro ukan eta igor ditzaten (ekologia, soziala, bortizkeriarik eza, militantzia... etab.)

Gainera, lan talde bakotxa eztabaida zerrenda berezi baten bidez dabil (ikus xehetasunetan 4. eta 5. orrialdeetako taldeak).

Bizi!-ren helbide elektronikoa hau da : info@bizimugi.eu

Bizi!-k **blog** bat badu, bertan mugimenduaren ekintza guziak eta informazio garrantzitsuak sarean emanak dira. Beti eguneratua da eta mugimenduaren aktibitate ezberdinei doazkien atal berezi ugari ditu : www.bizimugi.eu



Bururatzeko, Bizi!-ren **facebook** helbidea hau da : <http://www.facebook.com/bizimugi>
Blogaren gisa berean, jitekoak diren ekintzak jakinarazten ditu, eta iragan ekintzen argazkiak hortan kausitzen ahal dituzue.

5. ZER DIRA KEINU BITXI HORIEK ?

(BILKURETAN)


Keinuen mintzaira erabiltzen da Bizi!-ren bilkuretan eztabaiden argitzeko, berdintasunaren bermatzeko eta parte hartzearen sustatzeko.

Sistema horri esker erabakien hartzea eraginkorragoa da, baliogabeko kalakak saihestuz.

Menperatzeko errexak da, zenbait minutuz praktikatzea nahikoa da.



Hitzartzea



Ados naiz



Ez naiz ados



Ez dut ulertzen



Aurka naiz



Hitzartze laburra



Eztabaida moztea



Proposamena



Aintzina / errepikatzen ari zira



Puntualtasuna

Jakitekoa : Bizi!-ren bilkurak zinez aitzinetik eman tenoreetan hasten eta bukatzen dira !!